

Pako Sodupe

IDAZLEA

Epaiaren zain!

H

ala ditugu 18/98ko sumarioan auzipetuak. Bederatzi urte sufritzen eta oraino uda ondotik zigorra jaso dezaketen beldurrez; oporretan ere artaga. Gu lasaiago egon ginen zer esango zuten zain, Donostiako Miramarren. Bigarren egunean Madrilgo epaile aurrerakoiek egin ziguten bisita, egun Yugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegiko epaile den Jose Ricardo de Prada jaunak eta *Egunkaria* auztegi epailearen erabaki duen Espainiako Auzitegi Nazionalen 1. zigor salako magistratu den Ramon Saez Valcarcel jaunak. Aurrerakoia ez izatera, ez ziren etorriko Donostiara, Eusko Ikaskuntzak gonbidatuagatik.

Leiho ondoan paratu nintzen: beti da ona itoegi sentituta ere, leihoren baten arnasbidea. De Prada jaunak monotono esandako hitz andanatik Auzitegi Nazionalera itzuli beharrak sortzen omen dion zorabioa iltzatu zitzaidan buruan: Madrilgo Auzitegi Nazionala egun gaizki definitutako “terrorismoa” borrokatzeko estatutresna bat dela aitortzen du –esaterako, Zigor Kodearen 577. eta 578. artikulua zabaltzeak ekarri du “desordena publikoak” eta “terrorismoarekin lotutako delituak” multzo berean sartzea, horrek berekin dakartzan zigor ondorio izugarriekin– eta horren ordez konponbidea aurkitzeko tresna izan behar lukeela; alabaina, Yugoslavia ohikoa buruturik hara itzuli beharra da, eta horrek zorabioa sentiarazten dio. Leihora



DANI BLANCO

begiratu dut: ezteiliar batzuk dotore jantzirik argazki-makinari kliska eta klaska dabilta, inguru paregabea! Auzitegi Nazionala barrutik aldatzen ahalegintzeko itzuliko da ala bere lanbidean gora egiteko?

Nor naiz ni inor juzkatzeko, baina Espainiako Konstituzioa gauza handitzat dutenek ere onartzen dutenean eskubide zibil eta politikoe-tan aurrera egiteko baino gehiago frankismora gibelarazteko balio duela auzitegi horrek, nola ez du epaile aurrerakoien artean kontrakotasun gehiago sorrarazten?, eta, jakina, epaileetan ez ezik politikari aurrerakoietan eta gizartearen, frankismoko

Ordena Publikoko Auzitegiaren bertsio eraberritua baino ez den horrek?

Valcarcel jaunaren mintzaldia patetiko samarra egin zitzaidan. 2001eko irailaren 11koaren ondotik mendebalean botere-guneetan hedatu den espiritu errepresiboa –herritarren eskubideen babesa bazter utzirik– 68ko maiatzeko espirituaren nostalgia sentitzera ekarri du: garai txarrak aurrerakoientzat. *Egunkariaren auztegi* epailearen erabaki duenean ez bezala, badu aukera ez hain aspaldiko espiritu hura berreskuratzeko epaia ematean.

Egunkariaren auztegi, 18/98 sumarioa, oraingoan ez bada hurrengoan, zu zeu irakurle, eta gu geu guztiok egon gaitezke egoera bidegabe berean sartuak

« *Egunkariaren auztegi, 18/98*

sumarioa, oraingoan ez

bada hurrengoan, zu zeu

irakurle, eta gu geu guztiok

egon gaitezke egoera

bidegabe berean sartuak »



Irungo Alardean. Tradizionalistek joan urtetako estrategia basatiari bukaera eman diotela dirudi.

Aldez aurretiko entseguetan, aurtzen ez dituzte joan urtetako erasoaldiak burutu eta bakean utzi dituzte mistokoak bereak egiten. Ez ikusiarena egitea erabaki ote duten ez da argi, baina hala gertatu da, eta orain arte ez bezala ez dira entzun hauen aurkako astakeriak, eskandalizatzen gintuzten haiek. Areago, inoiz baino arinago ibili omen dira desfilatzen, mistokoekin batera ez egiteko, adinduetan gihar arazoak sortuz. Bat baino gehiago ikusi dut hanketako minez, bikiak harri eta gerriak burdin.

Tregua

ere badakigu. Hala ere bazterketak bere hartan dirau, alkateak ez ditu mistokoak udaletxean hartu eta publikoki defendatu du bere erabaki komertziala, zuzentasuna bake hau baino garestiagoa dela eta bere larrutik ordaindu beharko lukeela jakitun. Eta Santano hau ez da epikarako sortua. Bere ibilbide politikoa profesionalari erreparatzea besterik ez dago. Aldundian kirol arduradun gaztea ezagutu genuen palkotako biztanle. Santa No. Eta ez doakio gaizki txilibiterotan bere ondasuna duenari. ■

Bakeak prezioa duela alegia. Ertzainak pozik. Ez dute zerbitzu berezirik egin behar izan, eta hori, berez berri ona da, soldadutza egin genuenok

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza